

BANPLING

Bazen behin neska bat Maria izena zuena. Maria oso alaia zen eta asko gustatzen zitzaion bere lagun Oierrekin jolastea. Hurrengo egunean bere urtebetetze eguna zen eta gau horretan zerbait pasatu zitzaion, bapatean bere inguruan borobil koloretsu batzuk agertu ziren, hasieran pentsatu zuen benetakoak zirela baina gero pentsatu zuen ezinezkoa zela, gainera hurrengo egunean bere urtebetetze eguna zen eta 13 urte bete behar zituen horregatik modu positiboan pentsatu zuen.

Hurrengo egunean poz-pezik esnatu zen, bapatean albora begiratu eta konturatu zen flotatzen zegoela, orduan izan zen konturatu zenean

- Orain ulertzen dut zergatik zeuden borobil koloretsuak nire inguruan-esan zuen Mariak.

Handik pixka batera aldatzen zegoenean ispiluan aurpegia begiratu eta konturatu zen bere azala oso disdiratsu ikusten zela. Gero, gosalduta ostean, Oierrekin ikastolara zihoan eta gertatu zitzaion guztia esan zion Oierri.

- Oier, gaur goizean flotatzen esnatu naiz.
- Hori ezinezkoa da Maria, seguru oraindik lotan zeundela- erantzun zion Oierrek.
- Baliteke, baina, hori bakarrik ez zait pasatu, ispiluan begiratu naizenean nire azala oso disdiratsu ikusten zen, banpiroen antzera- esan zion Mariak Oierri.

Ikastolara heldutakoan andereñoek antzerki bat egingo zutela esan zioten klaseko guztiei eta abixatu zieten casting bat egongo zela antzerkia egiteko aktoreak aukeratzeko.

Maria, casting-ea apuntatu zen asko gustatzen zitzaiolako antzeztea, baina, behin casting-a bukatuta ez zuten hartu antzerkia egiteko. Ikastola bukatutakoan Oierrekin zihoan etxera eta gainera oso haserre eta bat-batean oso haserre zegoelako kontenedore bati ostikada jo eta kontenedorea hegaran irten zen.

- Oier, ikusi duzu?- esan zion Mariak.
- Bai, ikusi dut, baina ez dut ulertzen, bakarrik ostikada txiki bat eman diozu- erantzun zion Oierrek.
- Ez dakit, baina, esango nuke botereak ditudala!- oihukatu zuen Mariak poz-pezik.
- Badakit oraingoz dibertigarria ematen duela, baina badaezpada ez esan iñori, eta ez erabili zure botererik. Nik pixka bat aztertuko dut eta bihar goizean esango dizut aztertu dudana- esan zion Oierrek Mariataz kezkatuta.

Hurrengo egunean Maria Oierrekin gelditu zen ikastolara joateko eta Oierrek pixkat beldurtuta ematen zuen.

- Maria atzo gauean ikertu egin nuen eta ematen du “misto” bat zarela, “banpling” bat, hau da, erdi gizakia erdi banpiroa eta botereak 13 urte betetzen dituzunean hasten direla- esan zion Oierrek kezkatuta.
- Eta, badakizu zer botere ditudan?- galdetu zion Mariak.

- Bai, oso azkar egin dezakezu korrika, oso indartsua zara eta hegaran egin dezakezu, baina, kontuz ibili behar zara, hemen inguruan mistoen ehiztari bat egon daitekeelako- esan zion Oierrek oso kezkatuta
- Zer da mistoen ehiztaria?- galdetu zion Mariak interes handiarekin beldurtuta
- Ba, mistoen ehiztaria, mistoak ehizatzen dituen pertsona bat da, hau da, zu bezalakoak- esan zion Oierrek eta bapatean Mariari letaginak atera zitzaizkion beldurrarengatik.
- Maria, tapatu azkar ahoa !!!- oihukatu zion Oierrek Mariari, Mariak ahoa tapatu zuen.
- Zergatik esan didazu ahoa tapatzeko Oier?- galdetu zion Mariak kezkatutik
- Letaginak atera zaizkizulako!- esan zion Oierrek isilpeka inok ez entzuteko.
- Nola, letaginak?- galdetu zion Oierri kezka aurpegiarekin
- Bai, letaginak, banpiroak bezala, begiratu ispilu honetan- esan zion ispilua ematen zegoen bitartean
- A bai, letaginak ditut, bueno kentzen saiatuko naiz, slurp, horrela bai, letagin gabe, bueno momentuz goazen klasera berandu goaz eta.- esan zuen. Ikastola bukatu ondoren Mariak Oierri lagundu zion bere lagunaren dendara lagunarekin hitz egitera, Oierren lagunari “biltzailea” deitzen zioten gauzen bildumak egiten zituelako. Behin hara heldutakoan Oierrek komiki bat egitea pentsatu zuen eta banpling bati buruz egitea nahi zuen eta lanean hasi zen, bere lagunak email bat jaso arte.
- Oier, zuk nahi bazenu komiki lehiaketa batera apuntatu ahalko zenuke, gainera denak mistoak bezela joango dira jantzita, zure komikian bezala.- esan zuen biltzaileak pozik
- Ados, apunta nazazu niri ere, baina, galdera bat, noiz da lehiaketa?- esan zuen Oierrek irrikaz.
- Apuntatuta, hurrengo zapatuan eraikin altuan izango da lehiaketa-erantzun zion biltzaileak ordenadorera begira. Oier bere komikia egiten hasi zen eta Maria bere etxera abiatu zen, etxera heldu zenean mutil berri bat ikusi zuen
- Kaixo Maria, justu-justu heldu zara, hau Iker da bizilagun berria, gaur afaltzen geldituko da- esan zion Mariaren amak Mariari irribarretsu.

Maria eta Iker agurtu egin ziren, baina Mariak ez zion susmo onik hartu, horregatik erabaki zuen hurrengo goizean bera espiatzera joatea.

Hurrengo goizean Ikerren atzetik joan zen eraikin luze baten puntara heldu arte eta han ikusi zuen Iker misto ehiztari bat zela eta orduan amorrugatik letaginak atera zitzaizkion eta Ikerrek buelta eman eta han ikusi zuen Maria suminduta, Iker ahozabalik gelditu zen

- Maria, zu... misto bat zara? noiztik?- esan zion Ikerrek ezin zuela hitz egin ere.
- Ba bai, misto bat naiz eta zu misto ehiztari bat?- esan zion Mariak oso suminduta.
- Baina nik ez zaitut ehizatu nahi, zu, ezagutu dudana pertsona alaiena zara eta- esan zuen triste Ikerrek.
- Ba, orduan ni ez ehizatu.- esaten dio Mariak.

- Ados, hitz ematen dizut ez zaitudala ehizatuko- esan zion Ikerrek eskua emanez.
- Bale, orain nola dena konponduta dugunez, nahi duzu nire lagun Oierrek nola konpetitzen duen ikusi?- galdetu zion Mariak.
- Ze plan ederra ni ere apuntatzen naiz- esan zuen Ikerrek poz-pozik.

Handik astebetera Maria, Iker eta biltzailea eraikin handira joan ziren Oier ikustera baina barruan zeudenean bapatean hots batzuk entzun ziren “Maria jarraitu nire ahotsari” entzuten zuen Mariak eta ahots horrek jarraitzea pentsatu zuen eta benetako banpiro batengana ailegatu zen.

- Maria, zure ama biologikoa naiz, horregatik zara banpling bat- esan zion emakumeak.

Mariak dena ulertu zuen eta gainera bere antza zuen orduan Mariak berarekin joateko eskatu zion eta bere amarekin aulkietara bueltatu zirenean Oier zegoen medalla batekin, eta zoriontsu izan ziren beti.

MAD